## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### KULTURA ETA EUSKARA DEPARTAMENTUA

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2010eko abenduaren 21ekoa, Euskara Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura diru laguntzak ematea arautzen duena eta 2011. urterako deialdia.*

1982ko azaroaren 24ko 10/82 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, bere 5. artikuluan Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritar guztiek hizkuntzaren esparruan dituzten eskubide nagusiak xedatzen ditu, eta ondoren bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren atalburuetan eskubide horiek bizitza sozialaren esparru guztietara hedatzen ditu. Legeak, halaber, erakunde bakoitzak dituen eskumenen barruan herritarrenganako hizkuntza politika aintzat har dezaten agintzen die herri administrazioei, besteak beste bizitza sozialaren alor guztietan euskararen erabilera sustatuz.

Bestalde, 1998ko uztailaren 28an, Eusko Jaurlaritzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen, Eusko Legebiltzarraren babesarekin, erakundeen hizkuntza politika gauzatzeko tresna nagusi gisa eta herri aginteek, nork bere eskumenen barruan, euskara sustatzeko aurrera daramaten jarduera bateratzeko asmoz.

Plan horrek xedatu ditu herri erakundeen hizkuntza politikak urteotan landu behar dituen alderdi estrategikoak, eta jarduera horretan aintzat hartu beharreko elementu komunak jasotzen ditu.

Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren bitartez betetzen du legeak agindutako sustapen lan hori, euskararen erabilera sozialaren esparruan lanean ari diren elkarteei, erakundeei eta norbanakoei diru laguntzak emanez.

Laguntzak helburu askotarikoak dira: Herri edo eskualde mailako hedabideak edota haien erantzule diren elkarteak, ikus-entzunezkoetan euskararen erabilera bultzatzea, euskarazko liburuen merkaturatzeari laguntzea eta irakurzaletasuna sustatzea, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia udal mailan aplikatzea bultzatzea, euskararen erabilera sustatzea alor sozio-ekonomikoan, eta abar.

Erabaki honen bitartez aipatu diru laguntzak arautzeko oinarri berriak onartzen dira, orokorrak zein berariazkoak, baita diru laguntza horien 2011ko deialdia ere. Deialdi horri dagokion gastu espedientea aldez aurretik tramitatzen da, 2006ko abuztuaren 2ko 37/2006 Foru Dekretuak ezarritakoari jarraikiz.

Horiek horrela, Kultura eta Euskara Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea jarraian ageri diren diru laguntza lerroen oinarri arautzaile orokorrak, baita horietako bakoitzaren berariazko oinarriak ere, erabaki honen I. eranskinean jasotzen direnak:

1. Euskarazko aldizkako argitalpenak.
2. Euskara sustatzeko proiektu eta jarduerak.
3. Euskarazko ikus-entzunezko proiektuak.
4. Euskaraz garatutako haur eta gazteen aisialdirako produktuak ekoiztu eta hedatzeko proiektuak.
5. Euskarazko liburuak hedatu, merkaturatu eta banatzeko ekintzak.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE CULTURA Y EUSKERA

*Acuerdo del Consejo de Diputados, de 21 de diciembre de 2010, por el que se regula el régimen de concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Euskera y convocatoria para el año 2011.*

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del uso del euskera, establece en su artículo 5 los derechos lingüísticos que asisten a todos los ciudadanos y ciudadanas de la Comunidad Autónoma Vasca, derechos que se extienden a todos los ámbitos de la vida social, conforme a lo regulado en los capítulos segundo, tercero, cuarto y quinto de dicha ley. Asimismo, el citado precepto encomienda a las Administraciones Públicas, en el ámbito de sus competencias respectivas, el desarrollo de una política lingüística hacia la sociedad, que impulse el uso del euskera en todas las esferas de la vida social.

Por otra parte, el Gobierno Vasco aprobó el 28 de julio de 1998, con el refrendo del Parlamento Vasco, el Plan General de Promoción del Uso del Euskera, como instrumento de plasmación de la política lingüística institucional y de coordinación de la actividad de las diferentes administraciones públicas en este ámbito.

Dicho plan establece los puntos estratégicos en los que debe centrarse la política lingüística de los poderes públicos durante estos años, y recoge los elementos comunes que deben inspirar su actuación.

En este contexto, la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de la Dirección General de Euskera, viene efectuando las acciones de fomento que estipula la ley mediante la concesión de subvenciones a las asociaciones, entidades y particulares que trabajan a favor del uso social del euskera.

Las ayudas abarcan diferentes objetivos: Medios de comunicación locales y entidades que los sustentan, apoyo al uso del euskera en los medios audiovisuales, ayuda a la comercialización de libros y promoción de la lectura, impulso de la aplicación del Plan General de Promoción del Uso del Euskera a nivel municipal, promoción del uso del euskera en el ámbito socioeconómico, etc.

Mediante el presente acuerdo se aprueban las nuevas bases reguladoras, generales y específicas, de las citadas subvenciones así como la convocatoria de 2011, cuyo expediente de gasto se tramita anticipadamente, de acuerdo con lo establecido en el Decreto Foral 37/2006, de 2 de agosto.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Cultura y Euskera, previa deliberación, el Consejo de Diputados,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras generales de las siguientes líneas de subvenciones, así como las específicas correspondientes a cada una de ellas, que se adjuntan como anexo I al presente acuerdo:

1. Publicaciones periódicas en lengua vasca.
2. Proyectos y actividades de promoción del euskera.
3. Proyectos audiovisuales en lengua vasca.
4. Proyectos de producción y difusión de elementos de ocio infantil y juvenil en lengua vasca.
5. Acciones de difusión, comercialización y distribución de libros en lengua vasca.

6. Euskararen erabilera soziala normalizatzeko udal planak.

7. Itzulpen praktikak egiteko bekak.

8. Alor sozio-ekonomikoan euskararen erabilera planak eta ikerketa proiektuak.

*Bigarren.* Onartzea diru laguntza horien 2011ko deialdia, erabaki honen II. eranskinean ageri dena, eta deialdi horri dagokion bi milioi hemeretzi mila laurehun eta laurogeita hamar (2.019.490,00) euroko gastu espedientearen aldez aurreko tramitazioa.

Deialdi honi dagokion gastu espedientea aldez aurretik tramitatzen denez, diru laguntzak eman ahal izateko ezinbestekoa izango da haiek ematea erabakitzen den unean behar adinako kreditu egokia egotea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2011rako aurrekontu orokorretan.

Deialdi honentzat hasieran aurreikusitako kopurua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, diru laguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da diru laguntza ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

*Hirugarren.* Ahalmena ematen zaio Kultura eta Euskarako foru diputatuari Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2011rako aurrekontu orokorrak onartzen direnean diru laguntza hauen deialdiari dagokion gastua baimen dezan, behar adinako kreditu egokia dagoela egiaztatu ondoren.

*Laugarren.* Erabaki honek onartzen dituen oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egun beretik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezezpena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2010eko abenduaren 23a.—Ana Urkola Aranburu, idazkari teknikoa.

(3279) (14892)

I. ERANSKINA

*Euskara Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura emango diren diru laguntzen oinarri arautzaileak.*

OINARRI OROKORRAK

*1. Diru laguntza eskatzeko baldintzak.*

1. Diru laguntza hauen onuradun izaera izango du diru laguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoa, edota diru laguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoena. Pertsona horrek, gainera, diru laguntza lerro bakoitzerako dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza zehatzak bete beharko ditu.

6. Planes municipales de normalización del uso social del euskera.

7. Becas de prácticas de traducción.

8. Planes e investigaciones aplicadas de promoción del uso del euskera en el ámbito socioeconómico.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria de 2011 de las citadas ayudas, que se acompaña al presente acuerdo como anexo II, así como la tramitación anticipada del correspondiente expediente de gasto, por importe de dos millones diecinueve mil cuatrocientos noventa (2.019.490,00) euros.

Dada la tramitación anticipada del expediente de gasto, la concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para 2011 en el momento de la resolución de la concesión.

El importe inicialmente previsto para la presente convocatoria podrá ser incrementado o disminuido, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

*Tercero.* Se faculta a la diputada foral de Cultura y Euskera para autorizar el gasto correspondiente a la convocatoria de las presentes ayudas, una vez aprobados los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para 2011 y comprobada la existencia de crédito adecuado y suficiente.

*Cuarto.* Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Diputados, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Donostia-San Sebastián a 23 de diciembre de 2010.—La secretaria técnica, Ana Urkola Aranburu.

(3279) (14892)

ANEXO I

*Bases reguladoras de la concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Euskera.*

BASES GENERALES

*1. Requisitos para solicitar las subvenciones.*

1. Tendrá la consideración de beneficiaria de estas subvenciones la persona física o jurídica que haya de realizar la actividad que fundamentó su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima su concesión y que, además, reúna los requisitos específicos establecidos para cada línea de subvención en su respectivo anexo.

2. oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzen onuradun ezin dute izan 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten den egoeraren batean diren pertsona edo erakundeek.

3. Onuradun izaera lortzeko debekuetan sarturik ez egoteari buruzko egiaztapena egin dezakete pertsonek edo erakundeek lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez, kasuen arabera, eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, ordeztu daitezke herri administrazio baten edota notario baten aurrean egindako aitorpenaren bitartez.

Diru laguntza eskaerekin batera aurkeztu beharreko zergei buruzko edo Gizarte Segurantzako ziurtagiriak ordezten ahalko dira, interesatuek berariaz hartarako baimena emana duten kasuetan, ziurtagiri horiek emateko eskumena duten entitateek diru laguntza kudeatzeko erantzukizuna duen organoari behar diren datuak zuzenean emanda.

*2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

1. oinarri hauen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastuak dira jarduera diruz laguntzekoaren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, eta berariazko oinarri erregulatzaileetan ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundutako elementuen erosketa kostuak ezin dezake inoiz merkatuko balioa baino handiagoa izan.

2. Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak 12.000 euro gainditzen baditu, eta aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresek emandako ondasunen hornidurak edo zerbitzu prestaziok direnean, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik onuradunak gutxienez hiru hornitzaileri eskaintza bana eskatu behar die, diruz lagundutako gastuen ezaugarri bereziei begiratuz ondasuna hornitu edo zerbitzua emateko merkatuan nahiko enpresa ez dagoenean izan ezik, edota gastua diru laguntza eskatu aurretik egin denean izan ezik.

Aurkeztutako enpresen arteko hautaketa, zuribidean edo, horrela bada, diru laguntzaren eskaeran adierazita, eraginkortasunari eta ekonomiari begira egin behar da, eta hautaketa proposamen ekonomiko merkeenaren aldekoa ez denean, berariazko memoria batean zuritu behar da.

3. Ondasun inbentariagarriak erosten diren kasuetan, arau hauek izango dira:

a) Diru laguntza mota bakoitzaren berariazko oinarri erregulatzaileek zehaztuko dute zein den ondasunak diru laguntza emandako xede konkretuari atxikitzeko onuradunak bete behar duen gutxieneko epea, betiere bi urte baino laburragoa izango ez dena.

b) Aurreko paragrafoan aipatu den destino beharkizun hori betetzen ez bada (hori, dena dela, ondasuna besterenganatzean edo kargapean jartzen denean gertatuko da) diru laguntza itzuli egin beharko da, 14. oinarrian xedatutako eran, eta ondasuna itzulketaren ordainketari atxikita geratuko da, haren edukitzailea nornahi den.

Aurreko paragrafoan aipatu den destino beharkizun hori ez da bete gabekotzat joko ondasun inbentariagarriak ordezten badira diru laguntza eman zen xedea modu berdinean betetzeko balio duten beste ondasun batzuekin, eta erabilera horri eusten bazaio ezarritako epea amaitu bitartean, betiere ordezte hori diru laguntza eman zuen administrazioak baimenduta egiten bada.

2. No podrán obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones reguladas en estas bases las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3. La justificación por parte de las personas o entidades de no estar incursas en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria podrá realizarse mediante testimonio judicial o certificación acreditativa, según los casos, y cuando dichos documentos no puedan ser expedidos, podrán ser sustituidos por una declaración responsable otorgada ante una administración pública o notario.

La aportación de certificaciones tributarias o de Seguridad Social junto con las solicitudes de subvención se sustituirá, cuando se cuente con el consentimiento expreso de los interesados, por la cesión de los correspondientes datos directamente al órgano gestor de las subvenciones por parte de las entidades competentes para expedir tales certificaciones.

*2. Gastos subvencionables.*

1. Se consideran gastos subvencionables a los efectos previstos en estas bases, aquéllos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, y se realicen en el plazo establecido por las diferentes bases reguladoras específicas de las subvenciones. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

2. Cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 12.000 euros y se trate de suministro de bienes o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

3. En el supuesto de adquisición de bienes inventariables, se seguirán las siguientes reglas:

a) Las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones fijarán el período durante el cual la persona beneficiaria deberá destinar los bienes al fin concreto para el que se concedió la subvención, que no podrá ser inferior a dos años.

b) El incumplimiento de la obligación de destino referida en el párrafo anterior, que se producirá en todo caso con la enajenación o el gravamen del bien, será causa de reintegro, en los términos establecidos en la base 14, quedando el bien afecto al pago del reintegro cualquiera que sea su poseedor.

No se considerará incumplida la obligación de destino referida en el párrafo anterior cuando los bienes inventariables fueran sustituidos por otros que sirvan en condiciones análogas al fin para el que se concedió la subvención y este uso se mantenga hasta completar el período establecido, siempre que la sustitución haya sido autorizada por la Administración concedente.

4. Diruz lagundutako proiektua egiteko finantza gastuak, zuzenbide edo finantza aholkularitzako gastuak, notario eta erregistro gastuak, eta peritu gastuak nahiz administrazioko gastu bereziak diruz lagungarriak izan daitezke subentzionatutako jarduerarekin zerikusi zuzena badute eta hura egoki prestatu edo burutzeko ezinbestekoak badira.

5. Zeharkako kostuak:

Proiektuari zeharkako kostuen % 5 leporatzea onartuko da. Gastu horiek onartuko dira, soil-soilik, gastuen aurrekontuan berariaz izendaturik aurkezten badira.

Zeharkako kostu horiek modu eraginkorrean egin behar dira, diruz lagundutako proiektuarekin lotura zuzena izan behar dute eta behar bezala egiaztatu behar dira.

Halaber, zeharkako kostuen portzentaje handiagoa onartu ahal izango da, betiere diruz lagundutako aurrekontuari egozten zaion portzentaje hori finkatzeko kostuen kalkulua behar bezala egiaztatzen bada, eta aurretik aipatutako baldintzak betetzen badira.

6. Zergak diru laguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenean.

7. Inoiz ere ez dira diruz lagunduko:

a) Banku kontuetako interes zordunak.

b) Interes, errekargu eta zehapen administratibo eta penalak.

c) Prozedura judizialetako gastuak.

d) Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatzeko gai direnean, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak.

*3. Eskaerak.*

1. Diru laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako urteko deialdiaren bitartez.

2. Eskaerak, dagokion dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztuko dira, ahal dela eta dituzten ezaugarriek bide hori ixten ez badie, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan, https://www.gfaegoitza.net atarian, ezarritako Erregistro Elektronikoan barrena. Eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkezterakoan foru dekretu hauek bete behar dira: Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzeko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, eta 2006ko irailaren 12ko 40/06 Foru Dekretua, foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duena.

Aurkeztu beharreko dokumentuaren izaerak formatu digitalera bihurtzea galarazten duenean, telekopia zenbaki honetara bidal daiteke: 943.426.293.

3. Halaber, eskaerak aurkez daitezke 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan adierazitako bide eta lekuetan, baita Kultura eta Euskara Departamentuko edozein erregistrotan ere.

4. Nolanahi den ere, eskaerak agiri hauez osatu behar dira:

a) Eskaera behar bezala beterik. Paperean aurkeztekotan, eredu orri ofizialean egin behar da, Euskara Zuzendaritza Nagusian eta www.gipuzkoaeuskara.net webgunean eskuragarri izango den ereduaren arabera.

4. Los gastos financieros, los gastos de asesoría jurídica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realización del proyecto subvencionado y los de administración específicos son subvencionables si están directamente relacionados con la actividad subvencionada y son indispensables para la adecuada preparación o ejecución de la misma.

5. Costes indirectos:

Se admitirá la imputación al proyecto del 5% de los costes indirectos. La admisión de estos gastos requerirá que se hayan consignado de forma expresa en el presupuesto de gastos admitido.

Los costes indirectos deberán realizarse de forma efectiva, tener relación directa con el proyecto concedido y acreditarse.

Asimismo, se podrá admitir un porcentaje superior de costes indirectos, si se acreditan suficientemente los cálculos de costes realizados para la determinación del porcentaje que se imputa al presupuesto subvencionado, y se cumplen los requisitos anteriores.

6. Los tributos cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente.

7. En ningún caso serán gastos subvencionables:

a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

b) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

c) Los gastos de procedimientos judiciales.

d) Los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación, y los impuestos personales sobre la renta.

*3. Solicitudes.*

1. El procedimiento para la concesión de subvenciones se iniciará de oficio mediante la convocatoria anual que será publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

2. Las solicitudes, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas, se presentarán, preferentemente y siempre que su naturaleza lo permita, vía Internet, a través del Registro Electrónico habilitado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, https://www.gfaegoitza.net. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de setiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, y en el Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral.

Cuando la naturaleza de la documentación a presentar no permita su conversión a formato digital, podrá remitirse por fax al número 943.426.293.

3. Igualmente, las instancias podrán presentarse por los medios y en los lugares señalados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como en cualquiera de los registros del Departamento de Cultura y Euskera.

4. En todo caso, las solicitudes deben constar de los siguientes documentos:

a) Instancia debidamente cumplimentada. En caso de presentarse en papel, deberá atenerse al modelo oficial, disponible en la Dirección General de Euskera y en la página web www.gipuzkoaeuskara.net.

b) Diru laguntza mota bakoitzaren berariazko agiriak, deialdian xedatutakoaren arabera.

c) Nortasunaren egiaztagiria (nortasun agiria, dagokion erregistroan inskribatutako eraketa eskriturak, dagokion erregistroak emandako ziurtagiria eta abar).

d) Identifikazio Fiskaleko Zenbakia.

e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak. Horren gainean, 1.3 oinarrian xedatutakoaren arabera, interesatuek adierazpen bat izenpetu dezakete, berariazko baimena emanez ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek behar diren datuak zuzenean Euskara Zuzendaritza Nagusiaren esku utz ditzaten.

f) Eskatzaileak onuradun izateko debekurik –sexu diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne–ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitorpena, 1.2 oinarrian xedatutakoaren arabera.

g) Eskatzaileak irekitako kontu korronte baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, diru etxe batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, bakar-bakarrik, diru laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.

h) Erakunde eskatzaileak Berrikuntza Agenda edo Lehiakortasun eta Berrikuntza Ibilbide bat ezarria izatea ziurtatzen duten lekukotasuna edo ziurtagiria.

i) Diru laguntza eskatzen den proiektuaren, programaren edo jardueraren gaineko azalpen txosten zehatza.

j) Proiektuaren, programaren edo jardueraren gastu eta diru sarreren aurrekontu zehatza.

5. Oinarri hauek arautzen duten esparruan aurreko urteetan diru laguntzarik eskuratu dutenek aski izango dute bakar-bakarrik aurreko pasarteko a), b), e), f), g), h) eta i) puntuetan xedatutako agiriak aurkeztea.

6. Eskatzen diren agirietakoren bat Gipuzkoako Foru Aldundiko organoren baten esku baldin badago, diru laguntzaren eskatzaileak erabil dezake 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35. artikuluko f) paragrafoan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

7. Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesatuari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe hori amaituta horrela egiten ez badu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

8. Diru laguntza mota bakoitzeko eskaerak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

*4. Emateko prozedura.*

Laguntza hauek elkarrekiko lehiakortasun jardunbideaz emango dira. Ondorioz, kasu bakoitzean ezarritako balorazio irizpideen arabera, diruz lagundu nahi diren jardueren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzeko moduko eskaera kopurua hautatuko da.

b) Los documentos específicos de cada línea de subvención, señalados en la convocatoria.

c) Documento acreditativo de la personalidad (DNI, escrituras de constitución inscritas en el registro correspondiente, certificado emitido por el registro correspondiente, etc.).

d) Código de Identificación Fiscal.

e) Certificados acreditativos de encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A este respecto, de acuerdo con lo señalado en la base 1.3, los interesados, podrán suscribir una declaración en la que manifiesten su consentimiento expreso a que las entidades que deben expedir tales certificados cedan directamente los datos que deban figurar en los mismos a la Dirección General de Euskera.

f) Testimonio, certificados o, en su caso, declaración responsable de no concurrir en el o la solicitante ninguna causa impeditiva de la condición de beneficiaria de las indicadas en la base 1.2, incluidas las que se hayan producido por discriminación por razón de sexo.

g) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre. Este documento sólo será necesario presentarlo cuando se solicite una ayuda por primera vez o hayan variado las circunstancias de la cuenta.

h) Testimonio o certificado que acredite la implantación de una Agenda de Innovación o un Itinerario de Competitividad e Innovación en la entidad solicitante.

i) Informe explicativo del proyecto, programa o actividad para el que se solicita la ayuda.

j) Presupuesto detallado de los ingresos y gastos del proyecto, programa o actividad.

5. Quienes hayan obtenido subvenciones en los años anteriores, en el ámbito de lo regulado en las presentes bases, sólo deberán presentar la documentación señalada en los apartados a), b), e), f), g), h) e i).

6. En el caso de que algunos de los documentos exigidos ya estuvieran en poder de cualquier órgano de la Diputación Foral de Gipuzkoa, quien solicite la subvención podrá acogerse a lo establecido en el apartado f) del artículo 35 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, siempre que se haga constar la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, y no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento a que correspondan.

7. Cuando la instancia de solicitud o la documentación que debe acompañarla adolecieran de algún error o fueran incompletas, se otorgará a los interesados un plazo de diez días para subsanar los defectos detectados, transcurrido el cual, sin que lo hubieran hecho, se les tendrá por desistidos de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

8. Los plazos de presentación de solicitudes de las ayudas económicas para cada línea de subvenciones se concretarán en la convocatoria anual.

*4. Procedimiento de concesión.*

La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, de manera que tan solo se seleccionará, conforme a los criterios fijados en cada caso, un número de solicitudes que asegure la calidad y viabilidad de las actividades subvencionadas.

*5. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzea.*

1. oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetan jasotako diru laguntza mota bakoitzeko berariazko oinarri erregulatzaileek diruz lagundutako jardueraren finantzaketa propioaren zenbateko bat eska dezakete. Diruz lagundutako jarduerarako ekarpen propioa kreditatu beharko da jardueran izandako gainerako gastuen gisa berean.

2. Diru laguntza mota bakoitzaren berariazko oinarri erregulatzaileetan besterik xedatzen ez bada, oinarri hauetan jasotzen diren diru laguntzak bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, diru laguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatzen dena baztertu gabe.

3. Diru laguntzen zenbatekoa ezin izango da, bakarrik nahiz beste diru laguntzekin batera, aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagokoa izan.

4. Diru laguntza lerroen berariazko oinarriak jasotzen dituzten 1., 2. 3, 4, 5 eta 8. eranskinetan aurreikusitako diru laguntzak, 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 zk. Europako Komisioko Erreglamenduak (2006/12/28ko 379 zk. EBAO), «de minimis» izeneko laguntzei Europako Komunitatearen Eratzu Itunaren 87. eta 88. artikuluak aplikatzekoak, arautzen ditu (egun Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107 eta 108 artikuluak dira). Laguntza hauek «de minimis» kalifikatzen dira, pertsona juridiko edo fisiko bati emandako diru laguntzak ez baititu 200.000 euro guztira gaindituko, hiru ekitaldi fiskaletako edozein epealditan. Muga honetatik behera laguntzek ez dute komertzioa murrizten eta/edo ez dute lehiakortasuna desitxuratzen eta, horren ondorioz, Europako Komunitatearen Eratze Itunaren 87.1 artikuluaren barruan ez dira sartzen (Funtzionamendu Itunaren 107.1 artikulua).

Laguntzaren eskatzaileak, diru laguntzaren eskaeraren eranskinaren arabera, aitortu behar ditu dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan jasotako beste «de minimis» laguntza batzuk, erreglamenduak ezartzen duen gehieneko muga ez duela gainditzen frogatzeko.

6. eta 7. eranskinetakko laguntzak ez dira estatu mailako laguntza Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunak 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Izan ere, onuradunak ez dira jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten enpresak. Horrenbestez, aipatu Itunak 108.3 artikuluan xedatzen duen jakinarazpen prozeduratik salbuetsita daude laguntza hauek.

*6. Diru laguntzen zenbatekoa.*

Diru laguntzen zenbatekoak diru laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri erregulatzaileetan aipatzen dena izango da.

*7. Izapidea.*

1. Diru laguntzak emateko prozedura izapidetzea Euskararen Normalkuntza eta Sustapen Zerbitzuaren eginkizuna da, eta hari dagokio behar diren ekintza guztiak burutzea ebazpen proposamena gauzatzeko beharrezkoak diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko.

*5. Financiación de las actividades subvencionadas.*

1. Las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones que se acompañan como anexos a estas bases generales podrán exigir un importe de financiación propia para cubrir la actividad subvencionada. La aportación de fondos propios a la actividad subvencionada habrá de ser acreditada de la misma forma que los gastos habidos en dicha actividad.

2. Salvo que las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones dispongan lo contrario, las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente.

3. El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

4. Las subvenciones contempladas en los anexos 1, 2, 3, 4, 5 y 8 de las presentes bases generales (referidos a las bases específicas de las distinas líneas de subvenciones) estarán sujetas al Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión, de 15 de diciembre de 2006, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado Constitutivo de la Comunidad Europea a las ayudas de minimis (DOUE, L n.º 379, de 28/12/2006), actualmente artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE). Estas ayudas son calificadas de minimis, puesto que ninguna ayuda total concedida a una persona jurídica o física determinadas superará los 200.000 euros, durante cualquier periodo de tres ejercicios fiscales. Se considera que por debajo de este límite las ayudas no afectan al comercio y/o no falsean la competencia y por consiguiente no entran dentro del ámbito de aplicación del artículo 87.1 del Tratado Constitutivo de la Comunidad Europea (artículo 107.1 TFUE).

El solicitante de la ayuda deberá declarar, conforme al Anexo adjunto a la solicitud de subvención, sobre otras ayudas de minimis recibidas en el ejercicio fiscal correspondiente y durante los dos ejercicios fiscales anteriores, con objeto de probar que la nueva ayuda de minimis no supera el límite máximo establecido en el Reglamento.

Las ayudas de los anexos 6 y 7 no constituyen una ayuda estatal con arreglo al artículo 107.1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que sus beneficiarios no son empresas que desempeñen actividades económicas; en consecuencia, estas ayudas quedan excluidas del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

*6. Cuantía de las subvenciones.*

Las cuantías de las subvenciones serán las indicadas en las bases reguladoras específicas correspondientes a cada línea de ayudas.

*7. Instrucción.*

1. La instrucción del procedimiento de concesión de subvenciones corresponde al Servicio de Normalización y Promoción del Euskera, quien realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

.2. Izapidetze fasea hasiko da eskaera bakoitzaz Euskararen Normalkuntza eta Sustapen Zerbitzuak egingo duen aurre ebaluaketaz, hori da, eskatzaileak diru laguntzaren onuradun izaera eskuratzeko ezarririk dauden baldintza guztiak betetzen dituela eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia dela egiaztatzea.

3. Euskararen Normalkuntza eta Sustapen Zerbitzuko buruak bere zerbitzuari atxikitako teknikari bat izendatuko du diru laguntza mota bakoitzean aurkeztutako eskaeren balorazio txostena egin dezan, oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarri erregulatzaileetan beste administrazio organoren baten txostena behar dela ezartzen ez bada.

4. Eskaerak ebaluatu ondoren, Euskara zuzendari nagusiak, Euskararen Normalkuntza eta Sustapen Zerbitzuko buruak, Euskara Zuzendaritza Nagusiko teknikari batek, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuko teknikari batek osatutako ebaluazio batzordeak ebazpen proposamena osatuko du, behar bezala arrazoituta, eta organo eskumendunari aurkeztuko dio ebazpena eman dezan.

5. Ebaluaketaren emaitza diru laguntza ez ematekoa baldin bada, edota eskatutako diru laguntza baino kopuru nabarmen txikiagoa ematen bada, hartu beharreko ebazpenaren aurretik, interesatuei 10 eguneko epea eskainiko zaie entzuteko tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

*8. Ebazpena.*

1. Kultura eta Euskara Departamentuko foru diputatuak emango du ebazpena, foru agindu bidez.

2. Ebazpena arrazoituko da diru laguntza bakoitzaren berariazko oinarri erregulatzaileetan xedatutakoaren arabera, eta nolanahi den ere, prozeduran kreditatu behar dira ematen den ebazpenaren oinarriak, diru laguntza bakoitza arautzen duten irizpide objektiboen arabera.

3. Diru laguntza emateko ebazpenak argi zehaztu beharko ditu diru laguntzaren xedea, onuraduna edo onuradunen zerrenda, zenbatekoa, ordainketa erak eta epeak, eta diru laguntza mota bakoitzaren berariazko oinarri erregulatzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurtso bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, eta interesatuek egoki iritzitako beste edozein errekurtso bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

4. Prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da, kasu bakoitzean, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera.

5. oinarri hauetan aurreikusten diren diru laguntzak emateko jardunbidearen barnean gerta daitezkeen ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 44. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Prozeduraren ebazpena jakinaraziko zaie interesatuei 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta bideratzea egingo da lege horretako 59. artikuluak jasotzen dituen xedapenen arabera; betiere, emandako diru laguntzak Euskara Zuzendaritza Nagusiaren webgunean argitaratzea baztertu gabe.

2. La fase de instrucción se iniciará con la preevaluación que realice el Servicio de Normalización y Promoción del Euskera de la solicitud de subvención, que consistirá en la verificación del cumplimiento de las condiciones establecidas para adquirir la condición de beneficiaria de la subvención por parte de la persona solicitante y de que la documentación presentada se encuentra completa y es correcta.

3. El jefe del Servicio de Normalización y Promoción del Euskera designará un técnico o técnica adscrita al mismo que emita informe de valoración de las solicitudes de cada línea de subvenciones, salvo que las bases reguladoras específicas de éstas, que se acompañan como anexos a estas bases generales, establezcan que las solicitudes sean informadas por otro órgano administrativo.

4. Una vez evaluadas las solicitudes, la propuesta de resolución del procedimiento se efectuará por una comisión evaluadora formada por la directora general de Euskera, el jefe de Servicio de Normalización y Promoción del Euskera, un técnico o técnica de la Dirección General de Euskera, y un técnico o técnica del Servicio de Intervención y Auditoría del Departamento de Hacienda y Finanzas. La Comisión evaluadora formulará la propuesta de resolución, debidamente motivada, que será elevada al órgano competente para resolver.

5. Cuando la evaluación efectuada resulte desfavorable respecto de la concesión de subvención, o el importe de ésta sea notablemente inferior al solicitado, de modo previo a dictar la resolución correspondiente, se otorgará a los interesados trámite de audiencia por plazo de 10 días para formular alegaciones.

*8. Resolución.*

1. La diputada foral del Departamento de Cultura y Euskera resolverá la concesión mediante orden foral.

2. La resolución se motivará de conformidad con lo que dispongan las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones debiendo, en todo caso, quedar acreditados en el procedimiento los fundamentos de la resolución que se adopte, con referencia a los criterios objetivos de concesión que rigen las correspondientes subvenciones.

3. En la resolución de concesión de la subvención se deberá hacer constar expresamente el objeto, solicitante o relación de solicitantes a los que se concede la subvención, importe, forma y plazos de pago, y demás condiciones y requisitos exigidos por las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones. Igualmente, en la resolución se indicarán los recursos que contra la misma procedan, así como el órgano ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las personas interesadas puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.

4. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de seis meses. El plazo se computará, en cada caso, a partir de la finalización del plazo de presentación de instancias.

5. En relación con el procedimiento de concesión de las subvenciones objeto de estas bases, los actos presuntos que puedan producirse se entenderán desestimatorios, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

6. La resolución del procedimiento se notificará a los interesados de conformidad con lo previsto en el artículo 58 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, y su práctica se ajustará a las disposiciones contenidas en el artículo 59 de la citada ley. Todo ello sin perjuicio de la publicación de las subvenciones concedidas en la página web de la Dirección General de Euskera.

*9. Onuradunaren betebeharrak.*

2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren diru laguntzei buruzkoak, eta eranskinetan jasotako diru laguntza mota bakoitzaren berariazko oinarri erregulatzaileetan ezarritako betekizunez gain, onuradunaren betebeharrak dira bereziki hauek:

a) Diru laguntza emateko oinarrian den proiektua gauzatzea, jarduera egitea edota jokabidea aintzat hartzea.

b) Diru laguntza ematen duen organoaren aurrean egiaztatzea baldintzak betetzen dituela, eta diru laguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin duela edo helburua bete duela.

c) Diruz lagundutako material inbentariagarriaren xede zehatzari eustea gutxienez bi urteko epean.

d) Diru laguntza eman duen organoak egiten dituen ikuskatze lanak onartzea, baita kontrol organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza kontrolak ere, aurreko zeregin horietan eskatuko zaien informazio oro emanez.

e) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste diru laguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu izanaren berri ematea diru laguntza ematen duen organoari. Jakinarazte hori ahal bezain laster eman behar da aditzera, eta betiere jasotako diru laguntzaren erabilera zuritu aurretik.

f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea, diru laguntza emateko ebazpena eman aurretik.

g) Onuradunari indarrean diren arauetan kasu bakoitzean eskatzen zaizkion kontabilitate liburuak, erregistro diligentziatuak eta gainerako dokumentuak izatea, baita diru laguntza mota bakoitzaren berariazko oinarrietan eskatzen diren kontabilitate egoerak eta erregistro bereziak ere, egiaztapen eta kontrol ahalmenak era egokian beteko direla ziurtatzeko.

h) Jasotako diru laguntzen erabilerari buruzko egiaztagiriak gordetzea, egiaztapen eta kontrol ahalmenen gai izan daitezkeen heinean.

i) Publizitate beharkizunak betetzea. Diru laguntzaren xedeko jarduerei buruzko publizitatean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara Departamentuaren lankidetza adieraziko da, euskaraz eta gaztelaniaz.

j) 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak, xedatutako printzipio orokorrak betetzea bere jardueretan, bereziki hurrengo alderdiei dagokienez: Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista, eta generoaren adierazleak txertatzea diruz lagundutako jardueraren ebaluazio irizpideetan.

k) 13. oinarrian adierazitako kasuetan jasotako dirua itzultzea.

l) Diru laguntza eman duen organoari jakinaraztea diru laguntza ematerakoan kontuan hartutako egoeren aldaketa oro.

m) Diruz lagundutako jarduera egiteko beharrezkoak diren baimen guztiak eskuratu eta haien xedapenak betetzea.

*9. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

Son obligaciones de las personas beneficiarias, además de las que puedan derivarse de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones recogidas en los anexos, especialmente las siguientes:

a) Ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.

b) Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Mantener el destino concreto del material inventariable para el que se concedió la subvención durante un plazo mínimo de dos años.

d) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

e) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá realizarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a la subvención percibida.

f) Acreditar, con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

g) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos exigidos por la normativa aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras específicas de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

h) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de las subvenciones recibidas, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

i) Cumplir con las obligaciones de publicidad. Se hara´ constar la colaboracio´n del Departamento de Cultura y Euskera tanto en euskera como en castellano en la publicidad que se realice sobre las actividades objeto de subvencio´n,

j) Cumplir en sus actividades con los principios generales establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en especial en lo que concierne a los siguientes aspectos: Uso no sexista del lenguaje y de las imágenes, e inclusión de indicadores de género en los criterios de evaluación de la actividad subvencionada.

k) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en la base 13.

l) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

m) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

*10. Diru laguntzak ordaintzea.*

1. Arau orokor gisa, oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzak era honetan ordainduak izango dira, beti ere aurrez behar diren administrazio urratsak eginik, eta diru laguntza bakoitzaren eranskinean bestelakorik xedatzen ez bada:

— Zenbateko osoaren % 60 diru laguntza ematen den unean, aurrerakin gisa.

— Gainerako % 40a, beharrezko diren agiri zurigarriak aurkeztutakoan.

2. oinarri hauek arautzen dituzten diru laguntzen hartzaileek laguntzaren bigarren zatia jaso ahal izateko, eskaera bat aurkeztu behar dute, agiri hauez lagundurik:

a) Aurrera eramandako programa edo jarduerari buruzko txosten zehatza. Gainera partaideen datuak adieraziko dira, sexua aipatuta eta, ahal den neurrian, datu horien azterketa eta interpretazioa.

b) Jardueran izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira. Diru laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, zein desbiderapen izan den adierazi behar da.

c) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Diru laguntza ematen duen organoak egiaztatuko ditu egoki deritzen eta diru laguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzten duten frogagiriak, diru laginketa teknikak erabiliz. Horretarako, onuradunari eskatu diezaioke berak hautatutako gastu frogagiriak bidaltzeko.

e) Gastu orokorrak eta zeharkakoak banatzeko irizpideak, 2.5 oinarrian xedatutako % 5 baino gehiagoko portzentajea aurkezteko asmorik baldin badago.

f) Egindako lanaren ziurtapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa.

3. Aurreko puntuan adierazten diren agiriak aurkezteko gehienezko epea izango da 2011ko abenduaren 10a.

*11. Diru laguntzak zuritzea.*

1. Diru laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla dokumentu bidez zuritu beharko da, 10. oinarrian adierazten den eran eta epeetan.

2. Fakturak eta gainerako gastuen zurigarriak organo diru laguntza emaileak egiaztatu eta zigilatuko ditu, beste diru laguntzarik jaso ote den behar bezala kontrolatzeko.

3. Diru laguntzaz gain, jarduerak finantzatzeko dirubide propioak edo beste diru laguntzak nahiz baliabideak erabili direnean, zuritzea egiterakoan haien zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jarduerarako erabiliak izan direla kreditatu beharko da.

4. Diru laguntza eman duen organoak egiaztatuko du diru laguntzaren zuritzea egokia izan ote den, eta diru laguntza emateko oinarrian izan zen jarduera gauzatu edota helburua bete ote den.

*12. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea.*

1. oinarri hauen ondorioetarako, ulertuko da onuradun batek azpikontratazioa egiten duela diruz lagundutako xedea den jarduera osorik nahiz zati batean burutzea beste inorekin hitzartzen duenean. Atal horrez kanpo gelditzen dira diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko onuradunak nahitaez kontratatu behar izango dituen gastuak.

*10. Abono de las subvenciones.*

1. Como norma general, y salvo que en el anexo respectivo se establezca alguna otra fórmula, las subvenciones reguladas por las presentes bases se abonarán, previos los trámites administrativos oportunos, de la siguiente forma:

— El 60% del importe total de la subvención en el momento de la concesión, en concepto de anticipo.

— El 40% restante, previa presentación de la documentación justificativa.

2. Quienes se beneficien de las subvenciones reguladas por las presentes bases deberán solicitar el abono de la segunda parte de la subvención, acompañando la documentación siguiente:

a) Memoria detallada de la actividad o programa desarrollado, incluyendo los datos de participación diferenciados por sexo, así como, en la medida de lo posible, el análisis y la interpretación de los mismos.

b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión, y en su caso fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con relación a un presupuesto estimado, se indicaran las desviaciones acaecidas.

c) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

d) El órgano concedente comprobará a través de las técnicas de muestreo monetario los justificantes que estime oportunos y permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir a la persona beneficiaria la remisión de los justificantes de gastos seleccionados.

e) Indicación, en su caso, de los criterios de reparto de gastos generales o indirectos, en el caso de que se vayan a aceptar en un porcentaje mayor que el 5% indicado en la base 2.5.

f) Documentación gráfica o audiovisual que sirva para acreditar y testimoniar la labor realizada.

3. El plazo máximo para presentar la documentación referida en el punto anterior será el 10 de diciembre de 2011.

*11. Justificación de las subvenciones.*

1. La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención se documentará de la manera y en el plazo que se indica en la base 10.

2. Las facturas y demás justificantes de gastos serán validados y estampillados por el órgano instructor a fin de efectuar el adecuado control de la concurrencia de subvenciones.

3. Cuando las actividades hayan sido financiadas, además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberá acreditarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

4. El órgano concedente comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

*12. Subcontratación de las actividades subvencionadas.*

1. A los efectos de estas bases, se entiende que una persona beneficiaria subcontrata cuando concierta con terceros la ejecución total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención. Queda fuera de este concepto la contratación de aquellos gastos en que tenga que incurrir la persona beneficiaria para la realización por sí mismo de la actividad subvencionada.

2. Onuradunak ezin du diruz lagundutako jardueraren % 75 baino gehiago azpikontratatu besterekin. Ezin dira inola ere azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handiagotu eta, aldi berean, haren edukiari balio erantsirik gehitzen ez dioten ekintzak.

3. Halaber, onuradunak ezin izango du azpikontratatu diruz lagundutako jarduerak guztiz edo zati batean burutzea ondorengo hauekin:

a) Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan aurreikusten dituen debekuetan –sexu diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne– sarturik dauden pertsona edo erakundeak.

b) Kontratatu nahi den jarduera horretarako beste diru laguntzak jaso dituzten pertsonak edo erakundeak.

c) Eragiketaren kostu osoaren ehuneko jakin bat jasotzen duten pertsona eta erakunde bitarteko edo aholkulariak, non eta ordainketa hori ez den justifikatzen egindako lanaren edota emandako zerbitzuen merkatuko balioaren arabera.

d) Onuradunarekin loturaren bat duten pertsonak edo erakundeak, egoera hauetan izan ezik:

— Kontratazioa merkatuko baldintza arrunten arabera egiten denean.

— Diru laguntza ematen duen organoak aldez aurretik baimena ematen duenean, berariazko oinarri erregulatzaileetan finkatzen den eran.

e) Deialdi eta programa berean diru laguntza eskatu duten pertsona edo erakundeak, baina diru laguntza eskuratu ez dutenak baldintzak betetzen ez zituztelako edota gutxieneko balorazioa lortu ez zutelako.

*13. Diru laguntzak itzultzea.*

1. Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira eta diru laguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 35. artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta bereziki hurrengo kasu hauetan:

a) Diru laguntza eskuratzea horretarako ezarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratze hori galaraziko luketen baldintzak ezkutatuz.

b) Diru laguntza emateko oinarrian dagoen helburua, jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.

c) Jasotako diru laguntza zuritzeko beharkizuna ez betetzea edo behar bezala ez zuritzea, 10. eta 11. oinarrietan xedatutakoaren arabera eta, hala behar denetan, diru laguntza mota bakoitzaren berariazko oinarri erregulatzaileetan.

d) Hedapen bitartekoak jartzeko beharkizuna ez betetzea.

e) Indarrean diren legeetan aurreikusitako finantza egiaztatze eta kontroleko jarduerei aurre egitea, aitzakiak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu gordetze aldetik diren beharkizunak ez betetzea ere, horrek eragiten duenean ezintasun bat diru laguntzaren erabilera egiaztatzeko, helburua bete den jakiteko, diruz lagundutako jardueren benekotasuna eta erregulartasuna, edo beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, diru laguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzeko.

2. La actividad subvencionada que la persona beneficiaria subcontrate con terceros no excederá del 75 por ciento del importe de la misma. En ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma.

3. Tampoco podrá concertarse por la persona beneficiaria la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con:

a) Personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones de del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, incluidas las producidas por discriminación por razón de sexo.

b) Personas o entidades que hayan percibido otras subvenciones para la realización de la actividad objeto de contratación.

c) Personas o entidades intermediarias o asesoras en las que los pagos se definan como un porcentaje de coste total de la operación, a menos que dicho pago esté justificado con referencia al valor de mercado del trabajo realizado o los servicios prestados.

d) Personas o entidades vinculadas con la beneficiaria, salvo que concurran las siguientes circunstancias:

— Que la contratación se realice de acuerdo con las condiciones normales de mercado.

— Que se obtenga la previa autorización del órgano concedente en los términos que se fijen en las bases reguladoras específicas.

e) Personas o entidades solicitantes de ayuda o subvención en la misma convocatoria y programa, que no hayan obtenido subvención por no reunir los requisitos o no alcanzar la valoración suficiente.

*13. Reintegro de subvenciones.*

1. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos previstos en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de manera especial en los siguientes casos:

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.

b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente, en los términos establecidos en las bases 10 y 11 y, en su caso, en las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones.

d) Incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de difusión.

e) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero previstas en la normativa vigente, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentos cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

f) Administrazioak onuradunei ezarritako beharkizunak ez betetzea, edota haiek, diru laguntza ematerakoan, onartutako konpromisoak ez betetzea, diru laguntza emateko oinarrian izan ziren helburuak betetzeko, proiektua gauzatzeko, jarduera egiteko edota jokabidea hartzeko moduari dagokionean edo eragiten dionean.

2. Emandako laguntzaren edo diru laguntzaren zenbatekoak, bakarka edota bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional edo nazioartekoen diru laguntza edota bestelako laguntzarekin batera, onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua gainditzen duenean, emate ebazpena aldatu egingo da eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da garatutako jardueraren kostuaz gaindiko diru kopurua.

Bi herri erakunderen edo gehiagoren diru laguntzak lortzen direnean, eta paragrafo honetan aipatzen den soberakina gertatzen denean, ebazpena aldatzea edo, beharrezkoa bada, dirua itzultzea gauzatuko da bakoitzak emandako kopuruaren araberako hainbanaketa eginda.

3. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko dira.

*14. Dirua itzultzera behartuak.*

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuruoi dagozkien berandutza interesak. Beharkizun horrek ez du zer ikusirik, hartara iritsiz gero, ezar daitezkeen zigorrekin.

2. Dirua itzultzeko beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki merkataritzako sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak, urratutako beharkizunak betetzeko beren ardurapeko beharrezko ekintzak egiten ez badituzte, ez betetzea gertagarri egiteko erabakiak hartzen badituzte edota beren mendekoenei leku ematen badiete.

3. Halaber, jarduerei utzitako pertsona juridikoen lege ordezkaritza dutenek, aplikagarri zaizkien xedapen legal edo estatutarioen arabera, haien itzulketa beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki.

*15. Araubide juridikoa.*

Oinarri orokor hauetan eta espezifikoetan aurreikusitakoaz gain, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa, eta hori garatzeko Erregelamendua, 2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretua, aplikatuko dira.

Diru laguntzen kontrol finantzarioa Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko 2007ko martxoaren 27ko 4/07 Foru Arauak VII. Tituluko Bosgarren Kapituluan ezartzen duenaren arabera egingo da.

## OINARRI ESPEZIFIKOAK

### 1. ERANSKINA

*Euskarazko aldizkako argitalpenen arduradun diren pertsona fisiko edo juridikoei diru laguntzak ematea arautzen duten oinarriak.*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren esparruan euskarazko aldizkariak sustatu eta bultzatzen dituzten erakunde eta elkarteei diru laguntzak emateko baldintzak arautzea.

f) Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a los beneficiarios, así como de los compromisos por éstos asumidos, con motivo de la concesión de la subvención, siempre que afecten o se refieran al modo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

2. Cuando el importe de las subvenciones o ayudas otorgadas, aisladamente o en concurrencia con la de otras concedidas por administraciones públicas o entes públicos o privados, nacionales o extranjeros, exceda del coste de la actividad a desarrollar por la persona beneficiaria, procederá a la modificación de la concesión y, si procede, al reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad desarrollada.

En caso de concurrencia de subvenciones de dos o más administraciones públicas, supuesto el exceso al que se refiere este apartado, la modificación de la concesión o, en su caso, el reintegro se aplicará mediante prorrateo de las cantidades otorgadas por aquéllas.

3. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público.

*14. Obligación de reintegro.*

1. Los beneficiarios, en los casos contemplados en la base anterior, deberán reintegrar la totalidad o parte de las cantidades percibidas más los correspondientes intereses de demora. Esta obligación será independiente de las sanciones que, en su caso, resulten exigibles.

2. Responderán subsidiariamente de la obligación de reintegro los administradores de las sociedades mercantiles, o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, que no realizasen los actos necesarios que fueran de su incumbencia para el cumplimiento de las obligaciones infringidas, adoptasen acuerdos que hicieran posibles los incumplimientos o consintieran el de quienes de ellos dependan.

3. Asimismo, los que ostenten la representación legal de las personas jurídicas, de acuerdo con las disposiciones legales o estatutarias que les resulten de aplicación, que hayan cesado en sus actividades responderán subsidiariamente en todo caso de las obligaciones de reintegro de éstas.

*15. Régimen jurídico.*

Además de todo lo previsto en las presentes bases generales y en las específicas, se estará a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su Reglamento, aprobado por el Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

El procedimiento de control financiero de las subvenciones será el establecido en el Capítulo Quinto del Título VII de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

## BASES ESPECÍFICAS

### ANEXO 1

*Bases que regulan la concesión de subvenciones a personas físicas o jurídicas, responsables de publicaciones periódicas en euskera.*

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases la regulación de las condiciones de concesión de las ayudas económicas destinadas a entidades que promuevan o impulsen publicaciones periódicas en euskera, dentro del ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*2. Eremua.*

Diru laguntza hauetan sar daitezke ondorengo a), b) eta c) multzoetan aipatzen diren aldizkako argitalpenen jabe diren pertsona fisiko nahiz juridikoak, beren egoitza sozial eta fiskala Gipuzkoako Lurralde Historikoan baldin badute.

Honako aldizkari mota hauetarako diru laguntzak eska daitezke oinarri hauetan araututakoaren arabera:

a) Herri edo eskualde mailan banatzen diren astekari, hamabostekari edo hilabetekariak.

b) Herri edo eskualde mailan banatzen diren egunkariak.

c) Hedapen orokorreko aldizkariak: Gutxien-gutxienez Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan barrena banatzen diren aldizkariak.

*3. Bete beharreko baldintzak.*

Diru laguntza hauek eskatzen dituztenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Euskara hutsean argitaratzea.

b) Banaketa-sistema garden eta agerikoa izatea.

c) Lege-gordailua eta ISSN edukitzea edo, hauek ezean, eskaera bideratuta izatea.

d) Izenburu berarekin argitaratzea, jarraikako seriean, zenbaki korrelatiboarekin eta argitalpen datarekin.

e) Aldizkarian inprimategi oina sartzea, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen beharkizun guztiekin.

f) Salneurriaren berri ematea eta harpidetza-sistemaren bat erabiltzen denean argi eta garbi adieraztea ale bakoitzean. Dohainik zabaltzen diren argitalpenen kasuan ez da aurreko hori bete beharrik izango.

g) Gai anitzeko informazioa eskaintzea.

h) Gutxieneko baldintza hauek betetzea urtean argitaratutako zenbaki kopuruaz, orri kopuruaz eta tiradaz:

*2. Ámbito.*

Podrán acceder a estas ayudas las personas físicas o jurídicas que sean titulares de publicaciones periódicas, tales como las señaladas en los apartados a), b) y c) siguientes, y que tengan su domicilio social y fiscal dentro del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se podrán solicitar las ayudas contempladas en las presentes bases para los siguientes tipos de publicaciones periódicas:

a) Publicaciones de carácter local o comarcal, con periodicidad semanal, quincenal o mensual.

b) Publicaciones de carácter local o comarcal, con periodicidad diaria.

c) Publicaciones periódicas de difusión general: Aquellas publicaciones que se distribuyan cuando menos en el ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*3. Requisitos.*

Quienes soliciten las subvenciones deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Publicarse exclusivamente en euskera.

b) Disponer de un sistema de distribución transparente y manifiesto.

c) Tener asignado el depósito legal y el ISSN o, en su defecto, haber tramitado su solicitud.

d) Ser impresas bajo una misma cabecera, en serie continua, con numeración correlativa y fecha de publicación.

e) Incluir un pie de imprenta con todos los requisitos exigidos por la legislación vigente.

f) Proporcionar información precisa sobre el precio o el sistema de suscripción, cuando exista, en cada uno de los números. Esta condición no será aplicable en el caso de las publicaciones gratuitas.

g) Tener un contenido de información multidisciplinar.

h) Cumplir las siguientes condiciones mínimas en cuanto a periodicidad, número de páginas y tirada anuales:

| *Aldizkari mota*<br>*Tipo de publicación* | *Zenbakiak*<br>*Números* | *Orrialdeak*<br>*Páginas* | *Tirada* |
|---|---|---|---|
| A | 10 | 120 | 400 |
| B | 170 | 680 | 400 |
| C | 1 | 100 | 800 |

i) A edo B motako aldizkarien kasuan, webgune bat izatea, aldizkariaren edukiaren bertsio elektronikoa argitaratzen duena.

Aurreko h) eta i) pasarteetan ezarritako baldintzak eskatu gabe geldi daitezke aldizkariaren banaketa esparru naturalak 2.500 biztanle baino gutxiagoko populazioa hartzen badu bere baitan.

*4. Baztertzeak.*

Diru laguntza hauez kanpo daude 3. oinarrian adierazten diren baldintzak bete arren ondorengo ezaugarrietakoren bat duten komunikabideak:

a) Eusko Jaurlaritza eta foru aldundienak, edota hauen menpe dauden sozietate publiko eta organismo autonomo edo antzekoen jabetzakoak.

i) En el caso de publicaciones de tipo A y B, disponer de una página web en la que se divulgue una versión electrónica de la publicación.

Los requisitos referidos en los apartados h) e i) anteriores podrán no ser exigidos en el caso de publicaciones periódicas cuyo ámbito de distribución natural comprenda una población menor a 2.500 habitantes.

*4. Exclusiones.*

No podrán optar a las presentes ayudas aquellos medios de comunicación que, aun cumpliendo con las condiciones mencionadas en la base 3, tengan alguna de las siguientes características:

a) Las publicaciones pertenecientes al Gobierno Vasco, diputaciones forales o sociedades públicas y organismos autónomos o similares dependientes de las anteriores.

b) Alderdi politiko, sindikatu edo lanbide elkargoen jabetzakoak.

c) Elkarte, fundazio edo antzekoen jabetzako argitalpenak, haien kide edo bazkideak onuradun bakar eta esklusibo badira.

d) Eskoletako argitalpenak, kultur buletinak, kirol aldizkariak eta ikuskizunen gidak.

e) Aldizkari tekniko, zientifiko edo espezializatuak, gai politikoak soilik aztertzen dituztenak, gai monografikoak lantzen dituztenak, edo gizarteko sektore mugatu bati begira egindakoak.

f) Informazio orokorrekoak edota gai anitzekoak ez diren herri argitalpenak.

g) Zabalkunde orokorreko egunkariak.

*5. Diru kopuruen banaketa.*

Diru laguntza hauetarako xedatutako aurrekontu kopuruak, oro har, hurrengo taulan ageri diren gehieneko ehunekoen mugen barnean banatuko dira, aldizkako argitalpen mota bakoitzeko eta laguntza era bakoitzeko:

| *Aldizkari mota* | *Gastu arrunteko diru laguntzak %* |
|---|---|
| A | 56,5 |
| B | 26.5 |
| C | 17 |

*6. Diru laguntzen mugak.*

Ematen diren diru laguntzak gehieneko muga bat izango dute:

— A eta B motako argitalpenetan: Urtean aurreikusitako kostuaren % 70.

— C motako argitalpenetan: Urtean aurreikusitako kostuaren % 50.

7. Diru laguntzak eman eta kuantifikatzeko irizpideak.

7.1. Zehaztapena.

Irizpide eta puntuazio hauek aplikatuko dira:

a) Laguntza eskaeraren xede den proiektuaren bideragarritasun eta egokitasun tekniko nahiz ekonomikoa; 25 puntu bitarte.

b) Erakunde eskatzailearen finantza baliabide propioek aldizkaria bideratzeko duten eragina, herri erakundeetatik jasotako ekarpenen aldean; 20 puntu bitarte.

c) Argitalpenaren urteko ale kopurua, orrialde kopurua, tirada eta banaketa, helburutzat duen esparruko biztanleen arabera; 20 puntu bitarte.

d) Argitalpenaren gizarte eta kultur interesa, bai eta bere eragineko ingurunean euskararen hedapena eta kalitatea zabaltzeko lagungarria izatea; 15 puntu bitarte.

e) Webgunearen bisitari kopurua urtean; 10 puntu bitarte.

f) Erakunde eskatzaileak Berrikuntza Agenda edo Lehiakortasun eta Berrikuntza Ibilbide bat ezarria izatea; 10 puntu bitarte.

7.2. Diru laguntza kalkulatzea.

Aipatutako irizpide horiek kasu bakoitzean aztertu eta balioztatuko ditu ebaluazio batzordeak.

Diru laguntza emateko proposamenean jasoko dira bakarbakarrik, kasu bakoitzean, oro har gehienezko puntuazioaren erdia gutxienez lortzen duten eskaerak.

b) Las publicaciones dependientes de partidos políticos, sindicatos o colegios profesionales.

c) Las publicaciones pertenecientes a asociaciones, fundaciones o similares, que tengan como destinatarios únicos las y los miembros de las mismas.

d) Las publicaciones escolares, los boletines culturales, las revistas deportivas y las guías de espectáculos.

e) Las publicaciones técnicas, científicas o especializadas, las de temas exclusivamente políticos, las de temas monográficos y las orientadas a sectores sociales determinados.

f) Las publicaciones locales que no sean de información general o multidisciplinar.

g) Los diarios de difusión general.

*5. Distribución de cuantías.*

Las cuantías presupuestarias consignadas para las presentes subvenciones se distribuirán, para cada tipo de publicación periódica y destino de la ayuda de acuerdo con los siguientes límites porcentuales máximos:

| *Tipo de publicación* | *Subvenciones de gasto corriente* |
|---|---|
| A | 56,5 |
| B | 26.5 |
| C | 17 |

*6. Límites de las subvenciones.*

Las ayudas que se concedan ascenderán como máximo:

— Publicaciones de tipo A y B: Al 70% del coste anual previsto.

— Publicaciones de tipo C: Al 50% del coste anual previsto.

7. Criterios para la concesión y cuantificación de las ayudas.

7.1. Especificación.

Se aplicarán los siguientes criterios y puntuaciones:

a) La viabilidad y adecuación técnica y económica del medio o proyecto para el que se solicita la ayuda; hasta 25 puntos.

b) Los recursos financieros de la entidad solicitante para lograr que su proyecto sea viable, en comparación con las aportaciones de las instituciones públicas; hasta 20 puntos.

c) El número de ejemplares anuales, número de páginas, tirada y distribución de la publicación, en función de los habitantes en el ámbito al que está dirigida; hasta 20 puntos.

d) El interés social y cultural del medio, así como su contribución a la extensión del uso y de la calidad del euskera en su entorno de influencia; hasta 15 puntos.

e) El número de visitantes anuales de la página web; hasta 10 puntos.

f) La implantación de una Agenda de Innovación o un Itinerario de Competitividad e Innovación en la entidad solicitante; hasta 10 puntos.

7.2. Cálculo de la subvención.

El estudio y ponderación de los criterios citados se realizarán por la comisión evaluadora.

Solo se incluirán en la propuesta de concesión de subvención aquellas solicitudes que, en cada caso, obtengan en total al menos la mitad de la puntuación máxima posible.

Horrela hautaturik gertatzen diren eskaeretan, diru laguntza izango da 6. oinarrian xedatutako gehienezko mugen halakoa.

Diru laguntza hauetarako xedatutako kopuruak ez badu, hautatutako eskaera guztiak multzoan hartuta, aipatutako gehienezko muga horretara iristeko biderik uzten, diru laguntza bakoitza proportzioan murriztuko da, proiektuaren aurrekontua eta balorazioan lortutako puntuazioa kontuan hartuta.

Ematen diren diru laguntzen kopuruaren gehienezko muga izango da, betiere, Euskara Zuzendaritza Nagusiari eskatutako kopurua.

*8. Diru laguntza ordaintzea.*

Oinarri orokorretan xedatutako epeetan eta eran ordainduko da diru laguntza.

2. ERANSKINA

*Euskara sustatzeko proiektuak eta jarduerak burutzeko irabazi asmorik gabeko entitate juridikoei diru laguntzak ematea arautzen duten oinarriak.*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da euskararen sustapen esparruan irabazteko asmorik gabeko entitate juridikoei ekintza jakinak garatu eta gauzatzearren diru laguntzak emateko baldintzak arautzea.

Lehentasunez hartuko dira dagokien udalen eta gainerako herri erakundeen lankidetzaz eta babesaz egindako programak eta jarduerak.

Laguntza hauen izaerak berak agintzen duenez, kanpo gelditzen dira inbertsio gastua dakarten jarduerak, besteak beste ekipamenduak edo material suntsikorra erostea eta lokalak berriztatzea.

*2. Onuradunak.*

Laguntza hauek jasotzeko gai izango dira irabazi asmorik gabeko entitate juridikoak, beren jarduera esparrua Gipuzkoan euskararen erabilera soziala sustatu, hedatu edo normalizatzeko programa eta jardueretan baldin badago, eta programak zuzenean egiten baldin badituzte.

Diru laguntza jasotzeko aurkezten den programa ekonomia aldetik aurrera eramateko modukoa izango da, eta bideragarritasun hori diru sarrera eta gastuen aurrekontu orekatuaren bitartez frogatu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen zaion diru laguntza kontuan hartuta.

*3. Eremua.*

Oinarri hauek arautzen dituzten diru laguntzak eska ditzakete Gipuzkoan kokatutako elkarte juridiko irabazi xederik gabekoek, indarrean dagoen legeriaren arabera eratu eta beren erregistro egokietan izena emanda egonik, jarraian adieraziko den arloren batean programa edo kultur jardueren bat egiteko asmoa baldin badute, betiere gipuzkoarrentzat interesgarriak izanik.

Salbuespen gisa, Euskara Zuzendaritza Nagusiak hala erabakitzen duenean, Gipuzkoaz kanpo kokatutako elkarteek eskuratu ahal izango dituzte laguntza hauek, baldin eta haien jardueraren zati esanguratsu bat Gipuzkoako esparruan egiten badute.

Para las solicitudes así seleccionadas, la subvención será igual a los límites máximos establecidos en la base 6.

En el caso de que la consignación presupuestaria destinada a estas ayudas no permita, para el conjunto de las solicitudes seleccionadas, llegar a dicho límite, la cuantía de la subvención se reducirá proporcionalmente en cada caso, en función del presupuesto del proyecto y de la puntuación obtenida en la valoración.

En todo caso, la cuantía de las ayudas tendrá como límite máximo la cantidad solicitada a la Dirección General de Euskera.

*8. Abono de la subvención.*

La subvención se abonará en los plazos y según el procedimiento establecido en las bases generales.

ANEXO 2

*Bases por las que se regula la concesión de ayudas a entidades jurídicas sin ánimo de lucro para la realización de proyectos y actividades de promoción del euskera.*

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases la regulación de las condiciones de concesión de ayudas económicas destinadas a la realización de determinadas acciones puntuales por entidades jurídicas sin ánimo de lucro, en el campo de la promoción social del uso del euskera.

Se tratarán de forma preferente las acciones y programas organizados bajo la tutela y colaboración de los respectivos municipios y demás entidades oficiales.

Por la propia naturaleza de las ayudas, quedan excluidas aquellas intervenciones que supongan gastos de inversión, tales como adquisición de equipamientos, material no fungible y acondicionamiento de locales.

*2. Beneficiarias.*

Podrán optar a estas ayudas las entidades jurídicas sin ánimo de lucro que desarrollen directamente programas de actuación que tengan incidencia en Gipuzkoa y se enmarquen en el área de programas o actividades que tengan por objeto la promoción, desarrollo y normalización del uso social del euskera.

El programa presentado, objeto de la subvención, deberá ser viable económicamente, acreditando dicha viabilidad por medio de un presupuesto de gastos e ingresos equilibrado, teniendo en cuenta la subvención solicitada a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*3. Ámbito.*

Podrán solicitar las subvenciones que las presentes bases regulan, las entidades jurídicas sin ánimo de lucro radicadas en Gipuzkoa, que estando constituidas con arreglo a la legislación vigente e inscritas en los registros correspondientes, proyecten realizar programas o actividades culturales en alguno de los ámbitos que se mencionarán a continuación y que sean de interés para los guipuzcoanos.

